BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2453

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 18koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko zuzendarien esku uzten baita eragiketaren arduradunaren eginkizunak betetzea, interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeko.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren 4.2 artikuluaren bigarren paragrafoak kontratazio-organoari edo dirulaguntzak emateko organo eskudunari esleitzen dizkio eragiketaren arduradunaren eginkizunak.

Beraz, dagokion prozeduraren arabera, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari dagokio eragiketaren arduradun izatea. Hala, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 5.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, sailburua da kontratazio-organoa, bai kontratu handietan, bai Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari dagozkion kontratuetan.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretako dirulaguntza izendunak ematea dagokio, sailaren jardun-arloan (otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 5.5. artikulua).

Aipatutako HFP/55/2023 Aginduak eragiketaren arduradunari zer eginkizun dagozkion ezartzen du, hala nola aplikazio informatikoen erabilera xehatua (CoFFEE eta MINERVA), dokumentazioa kargatzea eta kudeaketa hutsarekin lotutako beste funtzio batzuk.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9.1 artikuluaren arabera, administrazio publikoetako organoek beste organo batzuei eskuordetu ahal izango dizkiete beren eskumenak, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira.

Kasu honetan, efikazia, efizientzia eta bizkortasun administratiboko arrazoiak direla-eta komeni da CoFFEE eta MINERVA aplikazioak erabiltzeko funtzioak eta horiekin lotutako beste kudeaketa-funtzio batzuk ohiko kudeaketatik gertuago dauden zuzendaritza-langileek betetzea, eta ez saileko titularrak. Horregatik, bidezkoa da langile horien aldeko eskuordetza antolatzea.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bigarren ebazpen-zatian aipatzen diren zuzendarien esku uztea eragiketaren arduradunari dagozkion eginkizun hauek, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan araututako interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeko:

– Eragiketaren erreferentzia-kodea (CRO) CoFFEE aplikazioan sortzen dela ziurtatzea (4.3 artikulua).

– MINERVA aplikazioan sartzea, CRO kodea idaztea eta prozeduretan esku hartzen duten pertsonei eta eragiketaren gaineko erabakiak hartzen dituztenei buruzko informazioa (IFZ) jasotzea (4.4 artikulua).

– Interes-gatazkarik ezaren adierazpenak MINERVAn kargatzea (4.4 artikulua).

– Bandera gorrien berri ematea ukitutako erabakitzaileari eta haren nagusi hierarkikoari, hala badagokio abstenitu dadin [5. artikulua, b) eta c) letrak].

– MINERVAko analisiaren emaitza proiektuen edo azpiproiektuen organo kudeatzaileei bidaltzea (edo haien baliokideari, entitate instrumentalen kasuan) [5. artikulua, c) letra].

– Analisiaren emaitza CoFFEEn erregistratzen dela ziurtatzea [5. artikulua, c) letra].

– MINERVAn informazio gehigarria eskatzea detektatutako arriskuei buruz abstentziorik ezaren kasuetan, eta ukitutako erabakitzailearen goragoko organoari helaraztea (6.2. artikulua).

– Iruzurraren aurkako dagokion batzordera jotzea, kasu jakin batean abstentziorik egin behar den adieraz dezan (6.3. artikulua).

– Interes-gatazkarik ezaren alegazio arrazoituari buruzko dokumentazioa CoFFEEn kargatzen dela ziurtatzea (6.4. artikulua).

Bigarrena.– Eginkizun horiek pertsona hauen esku uzten dira:

– Leire Corrales Goti, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Zerbitzu zuzendaria, Next Generation funtsen kudeaketaz arduratzen dena.

– Gorka Iturriaga Madariaga, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria.

Hirugarrena.– Eskuordetza hau edozein unetan errebokatu ahal izango da agindu bidez.

Laugarrena.– Agindu hau dagozkion bitarteko ofizialen bidez emango da argitara, eta, nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 18a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.